

# 2020

LABURPENA

## **2020ko jardueren memoria Gizatea**



Asociación de Empresas  
de Inserción del País Vasco  
Gizarteratzeko eta Laneratzeko  
Euskadiko Enpresen Elkartea

# 1. ARDATZA

## ERAKUNDE PUBLIKOekin, GIZARTE-ERAGILEKIN ETA GIZARTEAREKIN ELKARRIZKETA ETA AINTZATESTEA

### ELKARRIZKETA

2020a elkarrizketa urtea izan da,  
batez ere lehen 6 hilabeteetan,  
COVID-19 pandemiaren ondorioz.

#### AUTONOMIA ERKIDEGO MAILAN




bilera:

- » (1) Enplegu eta Gizarte politiketako Saila
- » (1) Lan eta Justizia Saila -  
Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza
- » (2) Enplegu eta Lan Saila
- » (1) Justizia, berdintasun eta Gizarte politiketako Saila

- + COVID-19ren krisiak EAEko GLEetan izan duen eraginari buruzko Txostena
- + Enpleguaren Euskal Estrategia lantzeko 2 tailerretan parte hartzea
- + Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaian eta lan-taldean parte hartzea COVID-19ren larrialdiaren testuinguruan, enpleguaren eremuan
- + LANBIDEREkin koordinazioa, modu jarraituan eta egonkorrean, urte osoan

#### LURRALDE HISTORIKOETAN

3 aldundiekin  
bilerak



#### ESKUALDETAN

Proiektu **1**

Debegesa Garapen Agentziarekin  
"Gizarteratze eta laneratze enpresa bat  
Debabarrenan. Aukerak identifikatzen.

#### UDALERRIETAN

Lankidetzaren Hitzarmen **1**

Bilboko Udalarekin, kontratazio publikoa  
planifikatzeko aplikazio baten pilotajearen  
bidez kontratazio erreserbatua sustatzeko.

# LANERATZE ENPRESAREN EREDUA AITZATESTEA, BALIOESTEA ETA ZABALTZEA



## ARGITALPENAK

- » 2019ko Gizarte Memoria
- » COVID-19ren krisiak EAEko GLEetan izan duen eraginari buruzko txostena
- » CIRIEC España aldizkariako artikulua zientifikoa: *"Nudos en el apoyo y la formación en las Empresas de inclusión: agenda de temas pendientes"*
- » GIZATEAren gizarteratzeko eta laneratzezeko laguntasunerako prozesuaren eskuliburuaren eredu berria

## PARTE HARTZEA: KONGRESU, JARDUNALDI, EKITALDI ETA TAILERRETAN

- + III. Nazioarteko Enplegu kongresua Euskal Enplegu Sistema eraikitzen Berrikuntza, elkarriketa eta berdintasuna
- + Unibertsitateko formakuntza eta masterretan 3 ikastaro
- + CEBEKek antolatutako Sprint ProBono Birtual programa (7 saio)

11  
taller eta  
jardunaldi



Gizarteratze eta laneratze enpresei buruzko kontsultak ebazteko eta jendeari arreta emateko zerbitzua. Telefonoz, posta elektronikoz edo aurrez aurre.

Kontsulten

**% 100eko**  
erantzunda

1. ARDATZA

# 2. ARDATZA

## HAZKUNDERAKO ETA SEKTOREA HOBETZEKO ETA INDARTZEKO TRESNAK GARATZEA

### SEKTOREAREN HAZKUNDEA

Debabarrenan laneratzeko enpresak sortzeko negozio aukerak identifikatzeko proiektua.

**Esparrua:**

Debegesarekin lankidetzan.

**Helburua:**

Laneratzeko eta negozio-aukerak hautemateko enpresen bidez hainbat sektoretan bete daitezkeen prozesuak eta/edo zerbitzuak azpikontratatzearen arloko beharrak identifikatzea, gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden eta lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten langabeei kalitatezko enplegu aukerak emateko, gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide baten barruan.

**Jarduerak:**

- » Komunikazio eta hedapen kanpaina
- » Elkarrizketak eskualdeko enpresekin
- » Harremanak gizarte erakundeekin
- » Eskualdean laneratzeko enpresak sortzeko negozio ideien multzoa
- » Identifikatutako ideien bideragarritasunaren azterketa

### BEAZ – GIZATEA Ibilbidea

**Esparrua:**

BFAko Ekonomia Sustapeneko eta Gizarte Ekintzako Sailen Ekintzaitetza eta Gizarte Berrikuntzako Programa.

**Helburua:**

Gizarte-berrikuntzako proiektuak sortzea, lehendik dauden laneratze-enpresetan laneratze-enpresa berriak edo jarduera-ildo berriak sortzeko enpresa-proiektuak diseinatzen eta egiten lagunduz.

**Parte-hartzaileak:**

9 erakunde/pertsona ekintzaile.

**Jarduerak:**

- » Taldeko 8 saio
- » 50 orduko tutoretza indibidualizatuak

**Emaitza:**

Laneratzeko enpresak edo lehendik dauden laneratzeko enpresetan jarduera-ildo berriak sortzeko 5 proiektu.



## ERRESERBATUTAKO KONTRATUAK

### Bilboko Udalarekin lankidetzaren hitzarmena

#### Helburua:

Kontratazio publikoaren plangintza hobetzea, laneratzeko enpresek kontratu publiko berriak eskura ditzaten sustatzeko kontratu erreserbatuen arloan, kontratazio publikoa planifikatzeko eta eraldatzeko metodologia agil baten bidez.

#### Jarduerak:

- » Kontratazio publikoa planifikatzeko metodologia arin baten gidaritza.
- » Laneratze-enpresentzat gordetako kontratazio-aukerak identifikatzea.
- » Laneratze-enpresei eta kontratu erreserbatuei buruzko informazioa eta aholkularitza.

#### Erreserbometroa:

2020. urtean laneratzeko enpresentzat gordetako kontratuen jarraipena eta monitorizazioa egitea, eta bilakaera aztertzea.

#### Kontratu erreserbatuei buruzko informazio eta aholkularitza zerbitzua:

Laneratze-enpresentzat eta administrazio publikoarentzat.

## LANERATZEN LAGUNTZEA

Laneratzeko laguntzeko ibilbideak kudeatzeko web aplikazioa orokortzeko aurrerapenak:

- » **4 laneratze enpresatako 5 profesionalen osatutako talde pilotu 1.**



## ENPLEGU ARRUNTERA IGAROTZEA

### “Enplegu inklusiboan berritzen” proiektua

Metodologia eta aliantza berriak bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonak enplegu arruntera igarotzearen kalitatea hobetzeko.

#### Esparrua:

EGFren Gizarteratzeko eta Gizarte Ekonomiako Programa Operatiboa (GGEPO), Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak batera finantzatua.

#### Helburua:

Bazterketa egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonak enplegu arruntera igarotzearen kalitatea hobetzea.

#### Faseak:

- » Laneratze enpresan ibilbidea amaitzen duten pertsonentzako enplegu arruntari laguntzeko metodologia diseinatzea, pilotatzea eta ebaluatzea.
- » Euskal enpresa ehuna sensibilizatzeko kanpaina, enplegu inklusiboari eta laneratze enpresei buruz, eta lankidetzarako aliantzak ezartzea, enplegu babestutik enplegu arruntera igarotzeko.

#### Metodologia:


lkerketa-ekintza.

#### Parte-hartzaileak:

- » Lan-merkatu arruntean sartzeko zailtasunak dituzten 24 pertsona.
- » 13 laguntza-profesional.
- » 13 laneratze enpresa.

#### Egindako jarduerak:

- » Jardunbide egokiei buruzko mintegi 1.
- » 2 prestakuntza mintegi.
- » 6 jarraipen mintegi profesionalekin.
- » 2 eztabaida-talde parte-hartzaileekin.
- » Kontraste saio misto 1.
- » 47 bisita enpresetara.
- » 18 bitartekaritza hautaketa-prozesuetan.
- » 2 argitalpen aldizkari sektorialetan.
- » Metodologiari buruzko argitalpen 1 aldizkari espezializatuan.
- » Emaitzak aurkezteko jardunaldi 1.



# 3. ARDATZA

## ENPRESA ELKARTUEN ARTEKO LANKIDETZA ETA SAREKO LANA SUSTATZEA

### LANKIDETZA: LANTALDEAK

#### GIZATEAko laneratzen laguntzeko taldea

laneratzen laguntzeko eredu berria aurkezteko jardunaldi bat.

#### Lantaldeak sektorialak COVID-19

##### Helburua:

COVID-19ko krisiak eragindako erronkei modu kolektiboan erantzutea: beharrak identifikatzea, konponbideak partekatzea eta GIZATEAko koordinatuta egin daitezkeen ekintzak adostea.

##### Parte-hartzaileak:

30 laneratze-enpresa.

##### Jarduerak:

7 lan-saio. Talde sektorialak:

- » Ostalaritza eta turismoa. Industria eta eraikuntza
- » Zaintza-zerbitzuak, mendekotasunaren arreta, gizarte-zerbitzuak, zerbitzu soziokulturalak
- » Garbiketa, mantentze-lanak, lorezaintza, baso zerbitzuak
- » Nekazaritza
- » Hondakinen kudeaketa, mugikortasuna
- » Merkataritza

##### Emaitza:

Elkarrekin lan egiteko 2 proposamen.



### SARE-LANA: SAREAN JARRAITZEN DUGU

